

# Nafarroa 1936

27 margo Memoria Historikoa eta Gerra Zibilaren ingurukoak

José Ramón Urtasun


# Nafarroa 1936

27 margo Memoria Historikoa eta Gerra Zibilaren ingurukoak

José Ramón Urtasun

2013ko Irailaren 16tik - 25era

**Bizkaia Aretoa**, Abandoibarra 3, 48009 Bilbo  
Tel.: 94 601 21 04 / 94 601 71 42  
e-mail: bak@ehu.es



2013ko Irailaren 16tik - 25era

Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera: **9.00etatik 19:30etara**

Hitzaldiak arratsaldeko 19:30etan hasiko dira Bizkaia Aretoan, Abandoibarra 3, Bilbon. Ateak zabalik egongo dira jesarleku guztiak bete arte.

Sarrera librea eta doan da bai erakusketarako eta bai hitzaldirako.



“**Nafarroa 1936**” memoria historikoa eta Gerra Zibilari buruz erakusketa da. Urtasun artista plastikoaren koadroen bidez, gogoeta egiten da 1936ko matxinada militarren testuinguruan frankistek Nafarroako hainbat herritan egindako zapalkuntzaz. Memoria historikoa arte konprometitu honen bidez ere berreskuratzea gerra edo gerraondoa bizi izan zuten biktimen eta sortzaileen azken belaunaldiaren lana da, etorkizuneko belaunaldientzako testigantza sentibera uzteko balio dezakeena.

Erakusketari amaiera emateko Bernardo Atxaga idazleak hitzaldi bat emango du, irailaren 25ean 19:30etan Bizkaia Aretoan Abandoibarran, Bilbon.

## ■ ERAKUSKETA

Erakusketa, 27 koadrok osatua, “Autobús de la Memoria” izeneko kolektiboak antolatu du, eta irudiak **José Ramón Urtasun** pintore nafarrak egin ditu. Bilboko kartela, margolariak beren-beregi hala eskatuta, hiru maisu arabarrei eskainitako koadroa da. Maisuok Urbasa mendizerran fusilatu zituzten eta Otxoportillo osinera bota. Han dira oraindik haien gorpuzkinak. Hiru maisuak ziren **Mauricio Rodríguez López**, Gordoako maisua; **Bernardo Domingo**, Galarretako maisua; eta **Miguel Gil**, Zalduondoko maisua.

Gertaera hauetako batzuk **Bernardo Atxagaren** *Soinujolearen semea* (2003) nobelan agertzen dira fikzionatuta, eta idazleak berak emango dio amaiera erakusketari irailaren 25ean, 19:30etan, emango duen **hitzaldiarekin**. Ekitaldia Bizkaia Aretoan izango da, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen ikurra den eraikinean, Abandoibarra 3, Bilbon.



## ■ HITZALDIAK

**Jesús Chueca**. UPV/EHUko irakaslea eta Memoria Historikoan aditua.

**José Ignacio Oreja**. Historialaria eta kazetaria.

**José Ramón Urtasun**. Margolaria.

2013-09-17 UPV/EHU Bizkaia Aretoan. 19:30etan.

**Luis Fuentes**, “Lau Haizetara Gogoan-eko” (Memoria historikoa) eta Euskal Herriko CNTko kidea.

**Gotzon Garmendia**, Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Historialaria.

2013-09-20 UPV/EHU Bizkaia Aretoan. 19:30etan.

**Bernardo Atxaga**

**Mauricio Rodríguez-Gastaminza**, Mauricio Rodríguez-en biloba, Gordoako maisua

2013-09-25 UPV/EHU Bizkaia Aretoan. 19:30etan.